

## PLAZAN bulletina

## ELKANO 500

[Elkanoren pentsamendua](#) 3  
Ekai Txapartegi Zumeta

[La fortuna de Elcano](#) 4  
Lucía García Ubarrechena

[Biblioteka txokoa](#) 5



# PLAZAN BULETINA

Elkanoren mundu bira aitzaki hartuta, plaza bat irudikatzea imaginarioan begiztatu zaigu egokiena, jolas leku modura, lasai antzera aritzeko.

Bidaiaik, fantasia, poesia, artea eta horrelakoak partekatzeko gonbidapena izan da bilduma honetarako sorburu, Elcano 500 deialdia. Eskatutakoa baino gehiago jaso dugu, askoz gehiago; akaso, nolabaiteko premiari erantzuna izan da.

Eskerrik asko parte hartu duzuen danori.

Pantailan ageri diren orri hauek, getariarren bidaia hura inspirazio hartuta, UPV/EHUko kideek sortutako ipuinak, argazkiak, marrazkiak eta tankera desberdinak lanez bete dira. Baita ere, dokumentu eta liburuetan adituak direnen iradokizunetaz.

Lan hauek, Unibertsitatea pertsonaren izaeraz jositako erakundea dela aldarrikatzen dute, edo behintzat, ahaztezina izanda ere, gogora ekarri arazten digute; taldeetan nahasten da, lehiakortasunean, erantzunkizunean, konpromisoan, baina baita adiskidetasunean, ilusioan eta eskuzabaltasunean ere.

Sortu zaigun tarte hau, boletin eran, xume eta arin agertzen zaigun arren, jakin-mina sustatu nahian azaleratzen den zerbait da, agian zorroztasunetik ihesi, atsedenerako pausaleku tarte bat.

La mejor imagen que se nos ha ocurrido para representar este trabajo ha sido la idea de una plaza. Se vislumbra en el imaginario como lugar de juego, un espacio de relajo, para actuar con tranquilidad, esta vez tomando como fuente de inspiración el viaje de Elcano.

El certamen Elcano 500, pretendía ser una invitación para miembros de la UPV/EHU para compartir viajes, fantasía, poesía, arte, etc. y hemos recibido más de lo que esperábamos, mucho más; tal vez, como una respuesta a alguna necesidad sentida, de no sabemos muy bien qué.

Gracias por enviarnos vuestros trabajos.

Como resultado, páginas que aparecen en la pantalla, inspiradas en aquel viaje, que se han llenado de cuentos, fotografías, dibujos. También, se han recibido sugerencias para conocer libros, películas o documentos varios.

Los trabajos recibidos, reivindican que la Universidad se erige del carácter más humano de las personas; se enreda en grupos, en competitividad, responsabilidad, compromiso, pero también en amistad, en ilusión, y generosidad.

Este espacio, a modo de boletín, es testigo de ello. Aunque se nos presenta ligero, ojalá active algo de curiosidad, quizás para escapar del rigor a un paréntesis breve de reposo.

■ Agustín Erkizia Olaizola  
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea  
Vicerrector de Campus de Gipuzkoa



# Elkanoren pentsamendua

1522ko urria, Valladolideko Gortea

Burua borborka ezagutu zuen Angleriak Elcano. Mundu-biratik iritsi berria, esperientzia-zakua inork ez bezala beteta eta, derrigor, begia zabalduta. Angleriak, ordea, ez zuen Elcano hura ezagutu. Kontakizun ofizialean 'ezjakin' etiketa itsatsi zion gortesauak, itsastarentzako etiketa itsaskorra inondik ere, oraindik bizkarrean daramalako.

## Ikerketa beharra

Elcano marinel ezjakina bazea, nola esplikatzen da hain gazte ontzi propioa izatea, kapitain izatea edo mediterraneoan ibiltzea, Saboiarrekin tratutan? Edo nola esplikatzen da mundu-birako espedizioan berehala maisu jartzea lege-zorrak izanda? Edo nola esplikatzen da txopakoek, bere kideek, bera aukeratzea kapitain izateko Magallanes hil ondorengo egoera kaotiko horretan? Edota nola esplikatzen da gero erregeak bera jartzea bozeramaile Portugalekin izandako negoziazionan?

Munduari bira emateko askotariko jakintzak behar dira, are gehiago garai hartan, GPSik edo motorrik gabe zebiltzalako. Jakintza praktikoak zein teorikoak, biak behar dira itsasoari buruz, zeruari buruz, ontziari buruz, materialei buruz edo giza psikologiari buruz. Bestalde, euskaraz egin arren gaztelaniaz ere idazten zekien eta latinez irakurtzen zuen. Batek daki zenbat hizkuntza zekizkien, mediterraneoan ibiltzeko, nazio guztietako lagunekin bai barkuan, bai tratutan.

Iaz GOGOA aldizkarian argitaratu nuen artikuluan, «[Elkanotar Juan Sebastian, pizkundeko humanista utopikoa?](#)», hipotesia aurreratzen nuen norabide berean: Elkanok joera humanistak zituela, errege gerrazaleen aurka idatzi zuela, joera politiko hedatzaleak ez zituela gustuko eta paganismoa errespetatzen zuela. Orduz gero, hipotesi hura indartzen joan da eta sarrera hau baliatu nahiko nuke, hain zuzen, artikulu horretan egiten ditudan baieztagen indarra erakusteko.

## Elcano humanista utopikoaren hipotesia

Utopiak amesten zituen Elcano anti-imperialista, gerren kontrarioa, hipotesi horrek indarra hartzen jarraitzen du. Hipotesiaren oinarria Maximiliano Transilvano errege idazkariaren bidaia-kronika da. Kronika haren azken zatia, Magallanes hil ondorengoa, Elkanok idatzitako bitakoraren latinerako itzulpena dela aldezten dut, hori baieztago lau arrazoi nagusi aurkeztuta.


Lehena, jakina dela Elkanok bitakora hori idatzi zuela eta errege idazkariari kopia bat eman ziola. Bigarren kopia Sevillan utzi zuen, Samanoren esku. Bi kopiak galdu diren arren, ziurra da existitu zirela.

Bigarren arrazoia da, Transilvano idazkariak ez ziola munduari birarik eman, eta azkar batean idatzi zuela testua, 1522ko urrian bertan. Ez zuela asmatzen ibiltzeko denborarik izan, ez zuela bidaian gertatutakoa ezagutzeko beste modurik eta ez zuela eduki utopiko horienganako inolako lerratze ideologikorik bere burutik asmatzeko.

## Utopiak amesten zituen Elcano anti-imperialista, gerren kontrarioa, hipotesi horrek indarra hartzen jarraitzen du.

Hirugarrena da estiloa, bi kronika dirudite batean, Magallaesena aurrena eta Elkanorena ondoren, bata bestearen ondoren itsatsi balira bezala. Lehenengo zatiari supremazismo kulturala dario, Patagonei buruz aritzean, edo asmo ebanjelizatzaile eredugarriak adierazten dira. Bigarren zatian, ordea, ez da halakorik nabari. Alderantziz, borneotarrez ari denean haien bizimodu xumea goresten da eta Jainkorik gabe pozik bizi direla.

Laugarren arrazoia da ordea garrantzitsuena. Nire uestez erabatekoa. Beranduago, 1557an, Fernandez de Oviedo historialari bi testuak konparatu zituenean, Elkanorena eta Transilvanorena, «ia berdinak dira» esaten duela. Ia berdinak baziren,



Transilvanok Elkanori kopiatu ziola ari da baieztagen Oviedo, alderantziz ezinezkoa delako. Fernandez de Oviedok mundu biraren zati hori nola kontatzen duen ikusita ere Transilvanoren kontakizunaren oso antzekoa da, hortaz bai Transilvanok, bai Oviedok Elkanoren bitakora jarraitu zuten. Beste aukerarik ez zait bururatzen. Horiengatik guztiengatik, modu sendoa baiezta daiteke: Transilvanoren kontakizun hori Elkanorena da edo, gutxienez, Elkanorenean oinarritzen da 'ia bera' izateraino.

Hori hala bada, ondorioa: Elkanok bere kabuz pentsatzen zuen, garaiko joera humanista aurreratuenekin bat egiten zuen (oroit Erasmo edo Moro) eta ausartu zen Gaztelako hedapen politika imperialarekin zein Karlos V.aren gerrazaletasun ebanjelizatzailearekin kontrastatzen zuen utopia eder bat irudikatzen Malaysiako uharteetan.

## Elcano ondoen getariarrek ezagutzen dute

Erregeak ez zuen Elcano maite eta Elkanok ez zuen erregea maite, ezinikusia nabaria baita bien arteko dinamiketan. Horregatik, Elcano nor zen eta nola pentsatzen zuen jakiteko, Getariako Elcano ikusten duen modura itzuli behar garela uste dut, Elcano Getariako begietatik irakurtzean hezur-haragizko Juan Sebastian agertzen zaigulako, Borneoko utopia idatzi zuen itsastar konplexu hura.

■ Ekai Txapartegi Zumeta  
(UPV/EHUko Filosofia irakaslea)



## La fortuna de Elcano

Quién no conoce la historia  
de Juan Sebastián Elcano  
el que recorrió este mundo,  
si no falla la memoria,  
terminando su viaje  
donde había comenzado.

Viajaría bajo estrellas  
y sabiendo bien que estas  
pueden predecir fortuna  
o penuria, según se vea,  
vio así pues algo prudente  
saber qué pensaban ellas.

Y las estrellas dijeron:  
Ve, darás la vuelta al mundo  
y en la palma de la mano  
tendrás un poder extraño  
el de quien ha ido y ha vuelto,  
y vivido para contarla.

Más por tormentas y mares  
te has de ver acorralado  
tu fe perdida, vencido,  
tu navío a la deriva  
de todo poder privado.

Pero no temas, no habrás  
de viajar en solitario  
tendrás un fiel portugués,  
Magallanes, a tu lado.

Mas como tú ya bien sabes  
toda dicha es pasajera  
y así, en Mactán, Magallanes  
habrá de hallar vida eterna.

El camino en el que embarcas  
es, sin duda, el más largo  
que el hombre ha de recorrer  
Y la flota que ahora aguarda,  
la que un día ha de volver.

De España saldrás maestre  
de la nave Concepción.  
En ella habrás de zarpar,  
pero el destino no quiere  
que la veas retornar.

Cuando, al fin, el horizonte  
de paso a la firme tierra  
capitán será tu cargo  
y al triunfo de mismo nombre  
la nao que un día fuera  
Victoria es quien te lleva.

■ Lucía García Ubarrechena  
Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa

# Biblioteca Txokoa

Elkanoren agindupean, Victoria itsasontziak historiako lehen zirkumnabigazioa burutu zuen 1522an. Sanlucar de Barrameda (Cádiz) portutik Guadalquivir ibaian goran atoian eraman ondoren, itsasontziak Sevillako portuan amaitu zuen bidaia, 1522ko irailaren 8an.

Hori izan liteke bidaiaaren amaieraren kontakizun simplea, baina xehetasunezko irudiak ontzi hondatu bat eta eskifaia ahitu bat erakusten ditu, biak ala biak atoian eramanak.


Atoian edo arrastean eramandako itsasontziak, giza sufrimenduak eta atsekabeak, neurrigabeko eginkizunak eta eldarnioak ere bai. Horiek dira bidaiaaren amaierako irudi honek iradokitzten dizkigun pentsamenduetako batzuk, eta, era berean, ideia horiek beste istorio eta kontakizun batzuen irudiak ekartzen dizkigute gogora, zeintzuekin antzekotasunak ikusten ditugun. Liburutegiak lehen buletin honi egindako ekarpenean gisa, kontakizun horietako bi eta haien irudiak aukeratu ditu: pelikula bat eta liburu bat, biak UPV/EHUko Liburutegian eskuragarri daudenak. Zuen interesekoak izango direlakoan, bakoitzaren sinopsi txiki bat eskaintzen dizuegu. Aldi berean, eta hasierako irudia abiapuntua hartuta, zuen oroitzapen-ariaketa pertsonala egitera gonbidatzen zaituztegu.

Bajo el mando de Elcano, la nao Victoria completó la primera circunnavegación de la historia en 1522. Tras ser remolcada Guadalquivir arriba desde el puerto de Sanlucar de Barrameda (Cádiz), la nao finalizó su viaje en el puerto de Sevilla, el día 8 de septiembre de 1522.

Este podría ser el relato simple de ese momento final, pero la imagen de detalle muestra una nave maltrecha y una tripulación diezmada y exhausta, ambas llevadas a remolque.

Barcos remolcados o arrastrados, sufrimientos y penalidades humanas, empresas desmesuradas y hasta delirantes. Estos son algunos de los pensamientos que nos sugiere esta imagen final del viaje y, a su vez, estas ideas nos hacen evocar imágenes de otras historias y relatos con las que vemos similitudes o con los que establecemos algún tipo de conexión. Como aportación de la biblioteca a este primer boletín, hemos seleccionado dos de esos relatos y sus imágenes: una película y un libro, ambos disponibles en la Biblioteca de la UPV/EHU. Esperando que resulten de vuestro interés, os ofrecemos una pequeña sinopsis de cada uno y, partiendo de esa imagen inicial, os invitamos también a realizar un ejercicio de evocación personal.

## Fitzcarraldo



*Fitzcarraldo* est l'histoire d'un rêveur qui veut introduire le Grand Opéra dans la jungle. C'est l'histoire d'un conquérant de l'inutile, d'un homme qui transporte avec l'aide de centaines d'Indiens un immense bateau d'un fleuve à l'autre, par-dessus une montagne, pour créer une voie d'accès à une zone de caoutchouc inaccessible.

[www.festival-cannes.com/fr/films/  
fitzcarraldo](http://www.festival-cannes.com/fr/films/fitzcarraldo)

- Herzog, W. (Zuzendaria) (1982). *Fitzcarraldo* [online]. Werner Herzog Filmproduktion  
<https://eliburutegia.efilm.info/eu/eliburutegia/info-peli/fitzcarraldo>
- Herzog, W. (Zuzendaria) (2000). *Fitzcarraldo* [DVD]. Manga Films  
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055230047>  
ehuBiblioteka-Arte Ederren Biblioteka

### HERZOGEN FILMAZIO-EGUNKARIA

«Quisiera estar en otra parte, donde la gente vuele sobre las torres de las iglesias, las iglesias sobre los campos de cultivo, los barcos sobre las montañas y los continentes sobre los océanos.

En Indonesia se ha ordenado la tala total de islas enteras...


... Qué intentaban decirme? Querían disuadirme de arrastrar el barco por encima de la montaña, protegerme de mi propia... la palabra locura apenas si se ha eludido...

... Hoy, miércoles 4 de noviembre de 1981, poco después de las doce del mediodía, hemos conseguido pasar el barco desde el río Camisea por encima de una montaña hasta el Río Urubamaba. Sólo queda por informar esto: yo he participado.»

### Erreferentzia bibliografikoak:

- Herzog, W. (2010). *La conquista de lo inútil*. Blackie Books  
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/733880877>  
ehuBiblioteka-Gipuzkoako Campuseko Biblioteka

## Las sirgueras de la ría de Bilbao



■ Barberia, I. (2006). *Las sirgueras de la ría de Bilbao*.

Bilbao Bizkaia Kutxa.

<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055236073>

ehuBiblioteka-ArteEderren Biblioteca

ehuBiblioteka-Esperimentzia Geleetako Biblioteca. Bilbo

Lehengo argitaratzen da Bilboko emakume zirgariei eskainitako liburu bat: XIX. mendearen amaieran unama edo zirga batekin gabarrak eta bestelako ontziak Abratik San Antoneraino korrontearen kontra herrestean eramatzen zituzten emakume langile haiei.

Zirgatzen, itsasadarraren eskuinaldean zehar zihoa bide batetik, idia bakarrik barik, gizonak eta emakumeak ere ibili izan ziren, euren indar fisikoak abereen tiraketa ordezkatu zuelarik nabigaezin gertatzen zen itsasadarra, bertan gora Bilboraino merkantziak garraiaturaz Sendeja, Hareatza edo Arriagako nasetara.

Bilboko itsasadarreko emakume zirgarietako gremio bat ere eratu zuten eta askok lan gogor honekin batera nasetan zamaketari ere jardun zuten...



**Dora Salazarren** 'Zirgariak' eskultura taldea, 2021ean inauguratua eta Bilboko itsasadarren Zirgariak Kaian kokatua. (argazkia: Makeip)



@EHUkultura

